



Haurrak babesteko erantzun jasangarria Karatun, Tanzanian

Zalantzarik gabe, COVID-19aren pandemiak eta herrialderik pobreenetan oinarritzko baliabideak eskuratzeko dauden aukera urriek agerian utzi dute alternatiba berritzaileagoak proposatu behar direla, gizarte-oinarriko toki-erakundeek aukera izan dezaten erantzun eraginkoragoak eta jasangarriagoak emateko, batez ere gizarte-egoerarik ahulenean dauden kolektiboen premiei erantzuteko sistema publikorik ez duten herrialdeetan.

Erantzuteko alternatiba berritzaileagoak bilatu nahian, Tanzaniako Mwema Street Children Center Karatu (MSCCK) gure tokiko bazkideak jarduketa-estrategia bat zehazten du, irtenbide eraginkoragoak eta jasangarriagoak aurkitzeko, eta, horri esker, gizarte-egoerarik ahulenean dauden adingabeen premiei (hala nola elikadura-, osasun- eta hezkuntza-premiei) erantzuteko.

MSCCK Tanzaniako GKE bat da. 2007an sortu zen, kalean bizi eta lan egiten duten haurren bizi-kalitatea hobetzeko helburu nagusiarekin. Urte hauetan, hainbat emaileren laguntzari esker, antolatzaileek adingabe horietako asko kaletik ateratzea eta hezkuntza-sistema publikoan sartzea lortu dute.

Respuesta sostenible de protección a la infancia en Karatu, Tanzania

Sin duda alguna, la pandemia COVID-19 unido a la limitada capacidad de acceso a recursos básicos existente en los países más empobrecidos, ha puesto de relieve la necesidad de plantear alternativas más innovadoras que posibiliten a las organizaciones locales de base social brindar respuestas más efectivas y sostenibles, particularmente en países donde los sistemas públicos no responden a las necesidades de los colectivos más vulnerables.

En este intento de definir alternativas de respuesta más innovadoras nuestra contraparte local en Tanzania, Mwema Street Children Center Karatu (MSCCK), trabaja en la definición de una estrategia de actuación que permita brindar soluciones más efectivas y sostenibles a las diversas necesidades que sufren las y los menores más vulnerables como son la alimentación, la salud y la educación.

MSCCK es una ONG tanzana creada en 2007 con la principal misión de mejorar la calidad de vida de los niños y las niñas que viven y trabajan en la calle. A lo largo de estos años, gracias al apoyo de diversos donantes, la organización ha logrado que muchos de estos menores salgan de la calle y se reincorporen en el sistema educativo público.



Oinarrizko eskubideak eskura adinekoentzat Tigrayn, Etiopian

Munduko per capita errentarik txikiena eta giza garapenaren indizerik baxuena duen herrialdeetako bat da Etiopia. Gainera, gatazka armatuko egoeran dago Tigray gaur egun, eta, beraz, egoera are zailagoa da eskualde horretan. Tigrayn azken urteotan garatu diren oinarrizko azpiegitura eta zerbitzu asko suntsituta daude, edo arpilatu egin dituzte. Eskualde horretan, gainera, elikagaien segurtasunik eza oso handia da.

Testuinguru horretan, adineko asko pobrezia kronikoko egoeran bizi dira, eta lehorreek eta herrialdeko baldintzek okerragotu egiten dute haien bizimodua. Gero eta zailagoa da diru-sarrera egonkorra izatea eta merkatuetan produktuak eta elikagaiak aurkitzea pentsio-sistematik ez duen herrialde batean, eta diru-sarrera bakarrak lanari hertsiki lotuta daude.

Wukroko Laguntza Integraleko Programak, ECC-SDCOAd-B/WSDP gure bazkidearenak, hainbat gizarte-proiektu garatzen ditu hain gizarte-egoera ahulean dagoen kolektibo horri laguntze aldera. **Albertia Zerbitzu Soziosanitarioek** finantzatuta, Tigray eskualdean zaugarritasun handiko egoeran dauden adinekoen bizi-baldintzak hobetzen saiatuko da. Hain zuzen, gaixotasun fisikoak eta mentalak dituzten 235 adinekoentzat izango da onuragarria proiektua.

Acceso a derechos básicos para las personas mayores en Tigray, Etiopía

Etiopía es uno de los países con la menor renta per cápita y con los índices de desarrollo humano más bajos del mundo. Si a eso le sumamos una situación de conflicto armando como la que vive hoy día la región de Tigray, la situación se vuelve más difícil aún. Muchas de las infraestructuras y servicios básicos que habían logrado desarrollarse en los últimos años en Tigray han sido destruidos o saqueados. Esta zona presenta además una inseguridad alimentaria altísima.

En este contexto, grandes grupos de personas mayores viven en condiciones de pobreza crónica, y las sequías y condiciones del país empeoran aún más su situación. Cada día es más difícil tener acceso a ingresos estables y encontrar productos y alimentos en los mercados, en un país donde no existe un sistema de pensiones y las únicas fuentes de ingresos están ligadas al trabajo.

El Programa de Asistencia Integral de Wukro llevado a cabo por ECC-SDCOAd-B/WSDP desarrolla diferentes proyectos sociales para dar respuesta a este colectivo tan vulnerable. Con la financiación de **Albertia Servicios Sociosanitarios**, se buscará mejorar las condiciones de vida de las personas mayores en situación de alta vulnerabilidad en la región de Tigray. En particular, 235 personas mayores con enfermedades físicas y mentales se verán beneficiadas en este proyecto.

Teknologia berriak eta hezkuntza Kingabwan

Zornotzako Udalak beste urtebetez lagundu du Covadongako Ama Birjina Eskolako (Kepa Azarloza Zentroko) ahalmenak indartzen, Kongoko Errepublika Demokratikoko (KED) hiriburu Kinshasako auzorik behartsuenetako batean haur-hezkuntza eta lehen eta bigarren hezkuntzak hango haurren eskura egon daitezzen.

Laguntza horri esker, Kingabwa auzoko baliabide gutxiko familietako 500 haur baino gehiago joan ahal izango dira eskolara 2021-2022 ikasturtean. Gainera, oraingo honetan, beste zazpi ordenagailu bidali dira informatikako gelarako. Horri esker, ikasleek, teknologia berrien arloan ez ezik, beste arlo batzuetan ere izango dute ezagutzak lortzeko aukera.

UNICEFek argitaratutako *Haurtzaroaren Munduko Egoera 2017: haurrak mundu digital batean* txostenak erakusten duenez, Interneten sartzeko izugarriko arrakalak daude munduan, eta horrek desberdintasunak sortzen ditu hezkuntzan eta lan-merkatuan sartzeko aukeran, besteak beste. Mundu digitala, bere abantaila guztiekin, ez da denengana berdin iristen, ez eta, beraz, haur eta gazte guztiengana ere. Sareko sarbidea funtsezkoa da, hor baitago gizarte-bazterketaren eta aukeraberberdintasunaren arteko aldea. Afrikan, 15 eta 24 urte bitarteko pertsonen % 60 ezin da sarera konektatu; Europan, berriz, portzentaje hori % 4koa baino ez da.

Hain zuzen ere, Afrikako haurrek eta nerabeek dute Interneten sartzeko aukera gutxien. KEDen kasuan, Interneteko sarbidea % 19koa da, *Digital 2020 Report, Hootsuite et We Are Social* txostenaren arabera. Ez dago ordenagailuen erabilerari eta Interneteko sarbideari buruzko datu ofizialik KEDeko ikastetxei dagokienez, baina, iturri ez-ofizialen arabera, herrialde osoko ikastetxeen % 6 baino ez litzateke ehuneko hori. Beraz, haur eta gazte horiek desabantaila eta desberdintasun handiko egoeran daude mundu digitalizatu honetan.

Nuevas tecnologías y educación en Kingabwa

El **Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano** ha apoyado un año más el fortalecimiento de las capacidades del centro escolar Nuestra Señora de Covadonga – Centro Kepa Azarloza con el objetivo de hacer accesible la educación en los niveles de infantil, primaria y secundaria en uno de los barrios más desfavorecidos de Kinshasa en la República Democrática del Congo (RDC).

Este apoyo posibilitará que más de 500 niños y niñas de familias de bajos recursos del barrio de Kingabwa puedan asistir a la escuela durante todo el ciclo escolar 2021/2022. Además, en esta ocasión, se reforzará el aula de informática con 7 ordenadores a los que tendrá acceso el alumnado para desarrollar conocimientos no solo en el ámbito de nuevas tecnologías sino también en otras áreas.

El informe publicado por UNICEF '*El Estado Mundial de la Infancia 2017: niños en un mundo digital*', muestra las enormes brechas en el acceso a Internet en el mundo, lo que genera diferencias en la educación y entrada al mercado laboral, entre otros. El mundo digital con todas sus ventajas no llega a todos y todas por igual y, por tanto, tampoco a todos los niños, niñas y jóvenes. El acceso a la Red puede marcar la diferencia entre la exclusión social y la igualdad de oportunidades. El 60% de las personas de entre 15 y 24 años de África no puede conectarse a la Red; mientras que en Europa, este porcentaje se reduce al 4%.

Los países en los que los niños, niñas y adolescentes tienen menos acceso se encuentran precisamente en el continente africano. En el caso particular de la RDC, el acceso a Internet según el informe "Digital 2020 Report, Hootsuite et We Are Social", es del 19%. No existen datos oficiales relativos al acceso a ordenadores e Internet en las escuelas en la RDC, pero fuentes no oficiales señalan que se trataría de tan solo un 6% de las escuelas de todo el país, lo cual sitúa a los niños, niñas y jóvenes en una posición de gran desventaja y desigualdad en un mundo digitalizado.





©MCSPA

Kokuseleiko San Jose Eskolak aurrera egin du hezkuntzaren kalitatea hobetzeko bidean

Azken hilabeteetan, Kokuseleiko San Jose eskolak (Kenya) hainbat sentsibilizazio-ekintza garatu ditu, gurasoek seme-alaben hezkuntzan duten parte-hartzea indartzeko. Gainera, **Andoingo eta Errenerriako udalek** diruz lagundutako proiektuaren barnean, eskola-baratzea abian jarri da, eta ikastetxearen inguruko komunitateetako hainbat eremu zuhaiztatu egin dira.

Herrialdeko beste eskola batzuek elikagaiak eskuratzeko eta ikasleei beharrezko janariak emateko zailtasun handiak dituzten bitartean (ixtera behartuak), San Jose eskolak elikadura ziurtatzea lortu du abian jarritako proiektuei esker.

Zentroaren funtzionamendu egokia dela eta, eskolak Gobernuaren baimenak lortu ditu lehen hezkuntzako amaierako azterketa ofizialak egin ahal izateko.

La Escuela San José de Kokuselei avanza en la mejora de la calidad educativa

A lo largo de los últimos meses, la escuela de San José de Kokuselei, en Kenia, ha desarrollado diversas acciones de sensibilización que han reforzado la implicación de padres y madres en la educación de sus hijos e hijas. Además, como parte del proyecto subvencionado por los **Ayuntamientos de Andoain y Errenerria**, se ha puesto en marcha la huerta escolar y se han arbolado diversas zonas de las comunidades aledañas al centro escolar.

En un momento en el que otras escuelas del resto del país tienen grandes dificultades para acceder a alimentos y brindar las comidas necesarias a las y los alumnos, viéndose obligadas a cerrar, la escuela San José ha logrado asegurar la alimentación gracias a los proyectos puestos en marcha.

Dado el buen funcionamiento del centro, la escuela ha obtenido los permisos del Gobierno para poder realizar además exámenes oficiales de final de primaria.

LAGUNTZA EMAN NAHI AL DIOZU DERANDEIN FUNDAZIOARI?

*Jasotako dohaintza eta laguntza guztiak **Etiopian, Kenyan, Kongoko Errepublikan Demokratikoan eta Tanzanian** ditugun kontraparteek egoerarik ahulenean dauden pertsonen eta kolektiboen oinarritzko eskubideak, hala nola hezkuntzarako eta osasunerako eskubideak, bermatzeko garatzen dituzten proiektuetara bideratuko dira.*

¿QUIERES COLABORAR CON DERANDEIN FUNDAZIOA?

*Todas las donaciones y ayudas recibidas irán destinadas a proyectos que desarrollan nuestras contrapartes locales en **Etiopía, Kenia, República Democrática del Congo y Tanzania** para garantizar derechos básicos como la educación y la salud de las personas y colectivos más desfavorecidos.*

DERANDEIN FUNDAZIOA VASCOK babesten du
DERANDEIN FUNDAZIOA está patrocinada por VASCO

VASCO



Produktu hau ingurumenaren aldetik zein sozialki arduraz kudeatutako basoetatik dator.
Este producto procede de bosques manejados de forma responsable, tanto ambientalmente como socialmente.